


Zirkunferentzia eta zirkulua

Ikusi zertan diren desberdinak zirkunferentzia eta zirkulua.


- **Zirkunferentzia** lerro kurbatu itxi bat da. Haren puntu guztiak zentro izeneko puntu batetik distantzia berera daude.
- **Zirkulua** zirkunferentzia batek eta haren barrualdeak osatutako irudi lau da.

Zirkunferentzia

Zirkulua



Zirkunferentziaren eta zirkuluaren elementu nagusiak hauek dira:




- **Zentroa:** zirkunferentziaren puntu guztietatik distantzia berera dagoen puntua da.
- **Erradioa:** zentroa eta zirkunferentziaren puntu bat lotzen dituen zuzenkia da.
- **Diametroa:** zentrotik igarota zirkunferentziaren bi puntu lotzen dituen zuzenkia da.

_____ lerro kurbatu itxi bat da, eta _____ irudi lau bat da.
Elementu hauek dituzte: _____, _____ eta _____.

1. Zenbatu eta erantzun.

- Zenbat zirkunferentziak eta zenbat zirkuluk osatzen dute irudia?



_____ zirkulu / _____ zirkunferentzia

- Zein objektuk du zirkunferentziaren forma? Eta zirkuluarena?



2. Behat irudia eta bete esaldiak.

- Zirkunferentzia udinaren _____ 4 mm luze da.
- Zirkunferentzia berdearen _____ 6 mm luze da.
- Zirkunferentzia gorriaren _____ 5 mm luze da.
- Zirkunferentzia _____ erradioa 3 mm luze da.
- Zirkunferentzia _____ diametroa 8 mm luze da.

